

irse.ebi



Instituto de Reintegración Social de Euskadi
Euskadiko Birgizarteratze Institutoa

KODE ETIKOA ETA JOKABIDEKOA

(Zuzendaritza Batzordearen bileran onartua, 2024ko otsailaren
5ean egindako ezohiko bilkuran)

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	2
a. Jarduera	2
b. Helburuak	3
c. Balioak	4
2. SARRERA	5
3. APLIKAZIO EREMUA	6
4. PRINTZIPIO ETIKO OROKORRAK	6
4.1 IRSE-EBI Euskadiko profesionali dagokienez.....	6
4.2 Erabiltzaileekiko harremanetan.	7
4.3 Agente, zerbitzu eta enpresa hornitzaileekiko harremanetan.....	8
4.4 Erakunde publiko eta pribatuekiko harremanetan.	9
4.5 Gizartearekiko harremanetan.	10
5. IRSE-EBI EUSKADIKO PROFESIONALEN OBLIGAZIOAK	11
6. LEGEAK BETETZEA	14
7. GARDENTASUN FINANTZARIOA	15
8. ZABALKUNDEA, PRESTAKUNTZA ETA EBALUAZIOA	15
9. DIZIPLINA ERREGIMENA	15
10. ONARPENA	16
11. ONARPENA ETA GARAPENA	16
ERANSKINA: SALAKETA KANALA	17



1. AURKEZPENA

1987an bere ibilbideari ekin zionetik, **Instituto de Reintegración Social de Euskadi/Euskadiko Birgizarteratze Institutua elkarteak (IRSE-EBI Euskadi)** pertsonen ongizate psikosoziala lortzen laguntzea izan du helburu, ikuspegi transbertsal eta integratzailetik lan eginda.

Pertsonen garapen pertsonala eta bizi kalitatea sustatuta, IRSE-EBI Euskadi elkarteak bilatzen du helduek eta adingabeek zein haien bizikidetzako familia guneek eta ingurune sozialak autonomia maila handiagoak eskuratzea, gaitasunen garapen integralerako laguntza tekniko-psikosozialaren bidez, eta hori lortzearen alde egiten du, beraz.

IRSE-EBI Euskadi irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 1987an eratu, interes sozialekotzat aitortua eta 2021etik onura publikokotzat aitortua. Erantzukizun publikoko zerbitzuak garatu, kudeatu eta ezartzen ditu gizarte eta hezkuntzaren testuinguruan eta testuinguru psikologiko eta juridikoetan, eta zaugarritasun, babesgabetasun edo bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonen eta haien familiei laguntza, tratamendu eta gizarteratze zerbitzuak ematen dizkie.

a. Jarduera

Zehazki, honako hauei zuzenduta daude bere jarduerak:

- gizartearentzat lan egiteko zigorak, askatasunaz gabetzeko zigorak eta kondenen ordezkapenak bete behar dituzten pertsonak.
- delitu motaren baten biktimak eta ondorio psikologiko, fisiko, ekonomiko eta/edo sozialen bat pairatzen duten haien hurbileko pertsonak.
- babesik gabe dauden edo gizarte eta hezkuntza izaerako neurrien mende dauden adingabeak (haurrak eta nerabeak) eta horien zaintzaren arduradunak.
- gizarte bazterketa edo zaugarritasun egoeran dauden pertsonak, gazte justiziaren testuinguruan aborlatze kliniko eta esku hartze terapeutikoa behar duten nerabeak eta gazteak.
- testuinguru judizializatu eta soziosanitarioetan aborlatze kliniko eta esku hartze terapeutikoa behar duten pertsona helduak.


Horretarako, esku hartze mekanismo pertsonalizatuak ahalbidetzen dituzten metodo, eredu eta programak sustatu eta garatzen ditu, banakako, familiako eta taldeko ikuspegi batetik, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatuz. Gainera, metodologia eta eredu propioa erabiltzen du, zientifikoa eta

teknikoki kontrastatua, kalitatean, esku hartze integralean eta sareko esku hartzean oinarritua, justizia leheneratzailearen ikuspegitik.

b. Helburuak

IRSE-EBI Euskadik ez du irabazi-asmorik, eta **helburu nagusi** hauek ditu:

- a.-** Atxilotua izan den, espetxetik atera den edo behin-behineko askatasunean dagoen edozein erabiltzaileri laguntza eta aholkularitza ematea.
- b.-** Gizartean baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen, delituzko jokabideak eta jokabide antisozialak dituztenei eta egokitzeko zailtasunak dituztenei edo izan dituztenei gizarteratzen laguntzea.
- c.-** Laguntza ematea edozein delituren biktima izan diren pertsonen – zuzenean edo zeharka delitu baten ondorio psikologiko, fisiko, ekonomiko edota sozialak pairatu dituzten pertsonak–, laguntzeko eskatzen dituztenean.
- d.-** Genero indarkeriaren biktimak diren emakumeekin eta haien seme-alaba adingabeekin lan egiteko programa espezifikoak bultzatzea eta gauzatzea.
- e.-** Adingabeen (haurrak eta nerabeak) eta horien zaintzaren eta babesaren ardura duten pertsonen arretarako, laguntzarako eta heziketarako prestatzen diren programak edo proiektuak egitea bultzatzea, dela babesgabe daudelako, dela gizarte eta hezkuntza neurrien edo bestelako neurrien menpe daudelako.
- f.-** Gazte justiziaren testuinguruan zein gazteen babesaren, gizarteratzearen eta prebentzioaren eremuan, nerabe eta gazteen arazo klinikoak hartzeko eta haiek terapeutikoki tratatzeko programa eta ereduak garapena bultzatzea.
- g.-** Testuinguru judizializatuetan zein testuinguru soziosanitarioetan eta gizarte eta hezkuntza testuinguruetan pertsona helduen arazo klinikoak hartzeko eta haiek terapeutikoki tratatzeko programa eta ereduak garapena bultzatzea.
- h.-** Justizia leheneratzailea eta gatazkak konpontzeko beste sistema baketsu batzuk eta gizarteko eztabaidak eta, bereziki, bere jardueraren garapen eremuetan gertatzen direnak argitzeko prozesu egokiak sustatzea, eta horien guztien gainean informatzea eta zabalkundea egitea.

 Instituto de Reinserción Social de Euzkadi Euzkoako Berrigaitzeratze Institutua	Kode Etikoa eta Jokabidekoa berrikustea Nork onartua: Zuzendaritza Batzordea	Zenbakia: 2
		Aldaketa: 01
		Onarpen data: 2024/02/05
		Orrialdea: 4 / 19

i.- Informazioa eta laguntza ematea Elkartearen helburu eta lan ereduetan interesatuta hurbiltzen diren pertsona guztiei, eta aholkularitza, prestakuntza eta gainbegiratze zerbitzuak ematea.

c. Balioak.

IRSE-EBI Euskadiren balioen aitortpena:

Hona hemen gure lanaren oinarrian dauden balioak:

- **Pertsona da protagonista:** Pertsona gure esku hartze guztiaren erdigunetzat hartuta, bere prozesuarekin zerikusia duten erabaki arlo guztietan parte har dezan lagunduz.
- **Arreta integrala:** Pertsonaren behar guztiei, bai Elkartearen baliabideekin, bai beste erakunde batzuekin koordinatuta.
- **Parte hartzea:** Erakundearen funtsezko indarra hura osatzen duten pertsonengan datzala kontuan hartuta –profesionalak, boluntarioak eta erabiltzaileak–, horien parte hartzea sustatzeko bitartekoak, estrategiak eta teknikak sustatzen dira.
- **Gardentasuna:** Kudeaketa ekonomikoari, pertsoneri eta erakundearen egiten den komunikazioaren argitasunari buruzkoa.
- **Berdintasuna sustatzea:** Tratu eta aukera berdintasunaren irizpideak erakundearen maila guztietan modu aktiboan sustatu eta aplikatzea.
- **Gaitasun profesionala:** Horren adierazle dira ezagutza teknikoen etengabeko eguneratzea eta emaitzen ebaluazioa, bai eta eskaintzen den arretaren kalitatea eta berotasuna ere.
- **Sareko lana:** Komunitateko gainerako baliabideekin, publiko zein pribatuekin, jarduera ildo berriek sortzen dituzten estali gabeko beharrak etengabe detektatzeko eta lankidetzan aritzeko eremu batean.
- **Nortasuna:** Misiorekiko koherentziari eutsita, estrategien eta proiektuen formulazioan azken erreferentzia gisa.
- **Elkartasuna:** Behar handiena duten pertsoneri arreta ematea eta elkartasun soziala sustatzea, eta, ahal den neurrian, boluntarioek gure programetan parte hartzea ahalbidetzea.

2. SARRERA

IRSE-EBI Euskadik bere Estatutuetan dituen printzipioetako bat da arreta pertsonalizatua, profesionalizatua eta kalitatekoa ematea; beraz, ematen dituen zerbitzuak gero eta eraginkortasun eta efizientzia handiagoz kudeatzeko antolaketa eredu egokia edukitzeaz gain, beharrezkotzat jotzen du bere jardueraren azpian betidanik egon diren printzipio eta balioak dokumentu batean jasotzea eta dokumentu hori Zuzendaritzari, plantillari eta tarteko agenteei helaraztea.

IRSE-EBI Euskadirentzat, Kode Etiko bat da erakundearen ezaugarri diren helburuekin koherente izanda jarduteko eta jokatzeko gida bat borondatez adierazteko modu bat.

Kode Etiko hau IRSE-EBI Euskadiren webgunean dago eskuragai (IRSE-EBI Euskadi.org/es/). Horrez gain, IRSE-EBI Euskadiko langileei ere bidaliko zaie beren posta elektronikoko helbidera, eta Elkarteak kudeatzen dituen zerbitzuetara inprimatuta bidaliko da, Elkartearen erabiltzaileek eta langileek eskura eduki dezaten. Gainera, kontratu bidez, praktikak egiteko edo boluntario Elkartean lan egiten duten pertsoneri ere aurkeztuko zaie beti Kode Etikoa, hasieran ematen zaizkien prestakuntza saioetan.

Kode Etikoa derrigor bete beharko da, eta hala adieraziko da berariaz kontratatutako pertsonen lan kontratuetan, kontratuari atxikitako dokumentu batean.

Espero da Elkartean sartzten diren pertsona guztiak Kode Etiko honekin ohitzea eta Kodearen printzipioak eta balioak aplikatzea beren zereginetan. Elkartean sartzten den edota bertan lan egiten duen edonork planteatu diezazkioke **Etika Batzordeari** Kode Etiko honek sorrarazten dizkion zalantzak, iradokizunak edo galderak. Batzorde hori, hain zuzen, Zuzendaritza Taldeko kide batek, Batzordeko beste batek eta bazkideen batzarrak aukeratutako langile batek osatuko dute.

Dokumentu honen asmoa ez da erabat zehatza izatea, ez eta gatazka etikoren bat edota jokabidekoa eragin dezaketen egoera guztiak jasotzea ere. Horrenbestez, Kode Etiko honetan aurreikusita ez dauden egoerak Etika Batzordeak ebatziko ditu, irizpide justu eta bidezko baten arabera eta kode honen printzipio orokorretan oinarrituta.

3. APLIKAZIO EREMUA

Kode Etiko honetan jasotzen diren printzipio eta jokabide arauak IRSE-EBI Euskadin dauden profesional guztiek bete beharrekoak dira, praktketan daudenek zein boluntarioek, alde batera utzita haien maila hierarkikoa eta kokapen geografiko edo funtzionala.

4. PRINTZIPIO ETIKO OROKORRAK

4.1 IRSE-EBI Euskadiko profesionalei dagokienez.

IRSE-EBI Euskadiren ustez, giza kapitala da berak duen aktibo nagusia, eta agintzen du pertsonak beti errespetuz tratatuko dituela, haiekiko harremanetan berdintasunez eta gardentasunez jokatzuz, eta konpromiso hauek bere gain hartuta:


a.-Diskriminaziorik ez eta aukera berdintasuna. IRSE-EBI Euskadik aukera berdintasunaren alde egingo du, bai kontratazioetan, bai prestakuntzan, bai jardueretan eta baita lan baldintzetan ere, eta, horretarako, saihestuko du genero, erlijio, ideia, ezgaitasun, adin eta orientazio sexuala direla-eta diskriminazio negatiboa egitea, eta diskriminazio positiboko neurriak aplikatuko ditu, beharrezkoak direnean. Eta debekatu egingo du jazarpen edo abusu fisiko, sexual, psikologiko edo hitzezko edozein adierazpen, bai eta lanean norbaiti beldurra, iraina edo gorrotoa sentiarazten dion giroa eragiten duen ezein portaera ere.

b.- Giza duintasunarekiko eta giza eskubideak errespetatzeko balioekiko konpromisoa, bai bizitza pribatuan, bai lan eta lanbide arloan.

c.- Familia bizitza eta laneko jarduera uztartzea. IRSE-EBI Euskadi saiatuko da, ahal den neurrian, familia bizitza eta lanekoa uztartzeko erraztasunak ematen.

d.- Intimitaterako eskubidea. IRSE-EBI Euskadik langileek emandako informazioaren pribatutasuna errespetatuko du, bai eta haiek egiten duten lanaren konfidentzialtasuna ere.

e.- Laneko segurtasuna eta osasuna. IRSE-EBI Euskadik lan arloan, gizarte segurantzaren arloan eta prebentzio eta segurtasunaren arloan indarrean dauden legeriak beteko ditu, lan arriskuak prebenitzeko eta minimizatzen.

 <small>Instituto de Reinserción Social de Euzkadi</small> <small>Euzkoako Birgaitzeratze Institutua</small>	Kode Etikoa eta Jokabidekoa berrikustea Nork onartua: Zuzendaritza Batzordea	Zenbakia: 2
		Aldaketa: 01
		Onarpen data: 2024/02/05
		Orrialdea: 7 / 19

f.- Prestakuntza. IRSE-EBI Euskadi bere langileen ibilbide profesionalen garapenaz arduratuko da, bai eta haien garapen pertsonalaz ere, eta horretarako etengabe prestatzen lagunduko die.

g.- Informazioa eta komunikazioa. IRSE-EBI Euskadik lantaldeak informatuta edukiko ditu beti haien jarduera profesionalerako garrantzitsuak diren aldaketa, proiektu eta helburuen gainean, eta agintzen du haien iritzia eta proposamenak entzun eta baloratuko dituela.

h.- Laneko giroa. Laguntasuna, errespetua eta talde lana bultzatuko da, eta horretarako langileei beren zereginak egiteko behar dituzten tresna eta lan baldintza egokiak eskainiko zaizkie.

i.- Langileak hautatu eta kudeatzeko prozesua banakako gaitasun eta ahalmenen merezimendu, gaitasun eta ebaluazio irizpideen arabera onartzea sustatuko da, erakundeak eskatutako profil profesionalerako eta gaitasunerako.

j.- Erakundeko langileen kontratazioa indarrean dagoen araudian jasotako lan kontraturen baten bidez egingo da, eta, aurreikusitako kasuetan, kontratazio kolektiboa aplikatuz.

k.- Ez da onartuko lan baldintza irregularrik, ezta Ogasun Publikoari aitortu gabeko diruarekin lan egiterik ere.

4.2 Erabiltzaileekiko harremanetan.

IRSE-EBI Euskadik bere erabiltzaileekin duen harremana balio eta printzipio hauen menpe egongo da:

a.- Pertsona ooren giza duintasuna erabat errespetatuko dela bermatzea, bere esku hartzearen ibilbideko protagonistatzat hartuta.

b.- Arraza, erlijioa, adina, nazionalitatea, generoa edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozial dela-eta inor ere ez dela diskriminatuko bermatzea, legeak debekatuta baitago.

c.- **Informazioaren konfidentzialtasuna, irudiaren errespetua eta pertsonen intimitaterako eskubidea** bermatzea, arreta berezia emanez adingabeen eskubideei, Datuen Babesari buruzko legeria betetzeko.

d.- Eskura dugun **informazio pribatua** ez erabiltzea.

e.- Esku hartze eremuan, emakumeen eta gizonen **aukera eta emaitza berdintasuna** bultzatzea, bai eta zuzentasuna ere.

f.- Proiektuetan eta zerbitzuetan **bikainak izatea bilatzeko** konpromisoa, eta etengabeko hobekuntzako prozesu horretan aurrerapen teknologikoak eta jardunbiderik hoberenak txertatzea.

g.- **Ez da onartuko**, sustatuko edo erraztuko erabiltzaileek **alkohola, tabakoa edo edozein substantzia estupefaziante kontsumitzea**, ezta sendagaiak behar ez bezala erabiltzea ere.

h.- Elikagaiak ematean ahalik eta neurri gehien hartuko dira, eta **erabiltzaileen osasunari emango zaio lehentasuna**.

i.- Langileek ezingo dituzte **giltzaz edo kisetaz itxi erabiltzaileekin biltzen diren edo haiekin bakarka egongo diren espazioak** (arreta berezia jarriko zaie erabiltzaile adingabeak dituzten zentro edo zerbitzuei).

4.3 Agente, zerbitzu eta enpresa hornitzaileekiko harremanetan.

IRSE-EBI Euskadik bere hornitzaileekin duen harremana balio eta printzipio hauen menpe egongo da:

a.- Elkarreak **irizpide objektiboak eta inpartzialak** erabiliko ditu aukeraketan, eta edozein eratako favoritismoz jokatzeko saihestuko du.

b.- IRSE-EBI Euskadik agenteekin, zerbitzuekin eta enpresa hornitzaileekin dituen harremanak **konfiantzan, zuzentasunean eta zintotasunean** oinarrituko dira.

c.- Harreman sendoa eta iraunkorra bultzatuko da aukeratutako enpresa hornitzaileekin, funtsean **kalitate, ekologia, gizarteratze eta elkarrekiko onurako irizpideak** edukitzeko.

d.- Legez kontrako jokabidea izango da hornitzaile jakin bat aukeratzeko **pizgarriren bat eskatzea edo jasotzea.**

e.- Elkarateak konpromisoa hartzen du **agentzia hornitzaileek emandako datu pertsonalen konfidentziasuna** zaintzeko, datuen babesari buruzko legeriak ezartzen duenaren arabera.

f.- Hornitzaileei eskatuko zaie **beren jarduera ekonomikoaren eremuetan lege xedapenak errespetatzeko**, erakundeari eskaintzen dizkioten zerbitzuei dagokienez, eta, bereziki, pertsona juridikoen erantzukizun penalarekin lotutako delituei dagokienez (arreta berezia jarritz gorroto eta/edo terrorismo kanpainei).

g.- Ahal dela, **langile bakoitzak bere arduradunari eman beharko dio**, eta erakundeko arduradun edo kide nabarmenetako bakoitzak Kontrol Organoari, bere eginkizunak betetzean **interes gatatzakaren** bat eragin dezakeen interes pertsonal ororen berri.

4.4 Erakunde publiko eta pribatuekiko harremanetan.

IRSE-EBI Euskadik erakunde publikoekin (baita Administrazioarekin ere) eta erakunde pribatuekin dituen harremanek lankidetzaren, gardentasuna eta Elkaratearen helburuak lortzeko adostasuna bilatzea dituzte funtsezko irizpide, eta, zehazki, printzipio hauetara egokituko dira:

a.- Erakunde bakoitzaren independentzia eta autonomia errespetatuko da.

b.- Beste erakunde batzuekin **elkarlanean aritu, eta esperientziak partekatuko dira**, lankidetzaren helburuak IRSE-EBI Euskadiren xede eta helburuekin bat datozenean, gure printzipio eta independentzia arriskuan jarri gabe, balio partekatuetan oinarrituta, arlo komunetan eta gizartearen onurarako.

c.- Erakunde publiko eta pribatuekin eta Administrazioarekin lankidetzan aritzean partekatzen **den informazioaren gardentasuna** bermatuko da.

d.- Organismo publikoekin **harreman kritikoa eta adeitsua edukiko da aldi berean**, agintaritzaren, koordinazio eta osagarritasunaren balioetan oinarrituta.

e.- **Ezingo da behar ez den oparirik eta abantailarik eskaini, ez eta eman, eskatu eta onartu ere, ez zuzenean ez zeharka**, haien izaera edozein dela ere eta zein agintaritzaren eskutik datorren berdin dela, IRSE-EBI Euskadik erakunde politiko

edota publikoekiko duen independentzia zainduta eta edozein eratako manipulazioa saihestuta.

f.- Ez da Administrazio Publikoko kideengan eta/edo politikoengan inolako eraginik izango, ezta hori sustatuko ere, eta, horretarako, **IRSE-EBI Euskadik erakunde politiko eta/edo publikoen aurrean duen independentzia** zainduko da, eta, hala, edozein instrumentalizazio mota saihestuko da. Era horretan, erabakietan modu desegokian eragiten saiatzea saihestuko da edo funtzionarioen (Administrazio Publikoaren izenean negoziatzen dutenak edo erabakiak hartzen dituztenak barne), zuzendarien edo Administrazio Publikoko langileen, haien ahaide, ezkontide edo hurbilekoen betebeharrak profesionalen aurkako ekintzak egitera bultzatzen saiatzea saihestuko da, nahiz eta ekintza horietatik Elkartearentzat onura lortu.

g.- Jasotako funts publikoak ez dira erabiliko, ez osorik, ez zati batean, jasotakoez bestelako helburuetarako.

4.5 Gizartearekiko harremanetan.

IRSE-EBI Euskadik gizartearekin duen harremana oinarritzko balio eta printzipio hauen menpe egongo da:

a.- Gure ekintza guztietan **gardentasuna** izango da gidari.

b.- Elkarte **zintzo lehiatuko da**, jokabide engainagarriak edo iruzurrezkoak onartu gabe.

c.- Bere jardueraren xede den biztanleriaren giza arazo eta arazo sozialen berri emango dio **komunitateari**.

d.- Saiatuko da IRSE-EBI Euskadiren jarduera guztiak **ingurumena ahalik gehien errespetatuz** egiten, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria ahalbidetuta.

e.- Jasotako baliabideak agindutako zerbitzuaren xedea gauzatzeko erabiliko direla **bermatuko du**.

f.- Entitateko profesionalek idazten eta/edo sinatzen dituzten **txostenak**, edo horiek beren jardueraren esparruan beste erakunde edo erakunde publiko

batzuei helarazitako informazioak **erabiltzaileen eta/edo haien familien eta ingurunearen egoeraren isla fidela izatea bermatuko du.**

g.- Indarrean dagoen ingurumen araudiari erreparatzen saiatuko da, bai eta ildo horretan emandako aginduak betetzen ere, eta Elkarteak esku hartzen duen arlo guztietan berezko jarduerak egitean baliabide naturalak errespetatuko dira.

5. IRSE-EBI EUSKADIKO PROFESIONALEN OBLIGAZIOAK

Zerbitzuak ematean kalitate irizpideak betez eta beren maila hierarkikoa alde batera utzita, IRSE-EBI Euskadiko profesionalak Kode Etiko honetan xedatutakoa betetzeko konpromisoa hartzen dute, eta, zehazki, **jokabide pertsonal eta profesionalaren printzipio** hauek:

a.- Erabiltzaileen arazoak konpontzeko modurik hoberena bilatuko dute, eremu guztietan (eremu sozialean, hezkuntzakoan, terapeutikoan, juridikoan, ekonomikoan, etab.) duten ezagutza eta baliabideen arabera, haien autonomia pertsonala sustatzeko.

b.- Lehentasuna emango diete **artatzen dituzten pertsonen premiei eta pertsona horien gizarte eta hezkuntza prozesuari edota prozesu birgizarteratzaileari – leheneratzekoa, errehabilitaziokoa eta hobekuntzako–**, beste gai batzuen aurretik –antolaketa, laneko gaiak, judizialak edo administratiboak–.

c.- Pertsonen aniztasun soziokulturala errespetatuko dute, zuzentasun irizpideei jarraituta eta zerbitzuan kalitate gutxiago eman gabe.

d.- Jokabide diskriminatzaileak, tratu txarrak, jazarpena edo Kode Etikoa jasotakoaren aurkako ekintzak errefusatu eta salatuko dituzte, eta ez dute erabiltzaileen eta erakundearen dokumentuen ikus-entzunezko, elektronikako, paperezko edo argazkiko grabaziorik edo/eta erreproduktziozko egingo, salbu eta eragiketa horiek eman zaizkion eta erakundeak baimenduta dituen eginkizunen ohiko jardunen barnekoak direnean.

e.- Egiazko informazioa, ulergarria, osoa eta zehatza emango dute eskainitako zerbitzuen gainean, bai eta pertsona onuradunen eskubide eta betebeharren gainean ere.

f.- Onartu egingo dute eta baimena emango dute, baita ere, beraien datu pertsonalak IRSE-EBI Euskadik kontratatutako langileen fitxategian sartzeko, zeina Datuen Babeserako Agentziaren Erregistroan inskribatuta baitago.

g.- Elkarateak emandako **IKT baliabideak** (ordenagailuak, tabletak, mugikorak, Internet, WIFI, mezu elektronikoak, etab.), instalazio guztiak (bulegoak, gelak, sukaldeak, zerbitzuak, etab.) eta lan ondasunak (ibilgailuak, furgonetak, etab.) **lan arloko irizpideekin** erabiltzeko konpromisoa hartuko dute, eta ez dituzte erabiliko baimendu gabeko beste helburu batzuetarako (adibidez, helburu pertsonaletarako) eta, kasu guztietan, Erakundeak datuak babesteari eta teknologien erabilerari buruz onartutako berriazko araudiarekin bat etorritik, ez dira erabiliko erakundearen ondasunak, eta, bereziki, baliabide informatikoak eta sareko baliabideak, legezko arauen, ordena publikoaren edo ohitura onen aurka egiteko, ez eta delituak edo, edozein kasutan, arrazan oinarritutako gorrotoko egintzak, indarkeriaren apologiakoak edo giza eskubideen urraketa dakartenak egiteko ere.


h.- Informazio pertsonala duten fitxategien edukiaren konfidentzialtasuna errespetatuko dute, eta haien kalitatea eta osotasuna zainduko dute une oro, eta, beti datuen babesari buruz eta teknologiak erabiltzeari buruz erakundeak onartutako araudi bereziak dioena betez. Konfidentzialtasuna zaintzeko betebeharra IRSE-EBI Euskadin egiten duten jarduera bukatzen denean amaituko da.

i.- Ez diete ez ekarpenik, ez ordainketarik, ez babes ekonomikorik eta ez oparirik eskainiko edota egingo –ez zuzenean ez zeharka- ez administrazio publikoko kideei, ez alderdi politikoei, ez eta erakunde pribatuetako arduradunei ere.

j.- Ez dute inolako opari garrantzitsurik eskatuko edota jasoko. Balio gutxiko opariak eta arretak baino ez dira onartuko, betiere arazoizkoak, sozialki onargarriak eta noizean behin badira. Diruzko opariak erabat debekatuta egongo dira.

k.- IRSE-EBI Euskadiko gainerako **lankideekin** zein Elkaratearen erabiltzaileekin **jokabide zuzena eta arduratsua** edukiko dute, eta haiekin ez dute harreman profesionalaz aparteko harremanik edukiko.

l.- Kode Etiko honetan eta indarreko araudian ezarritakoa hautsi dela jakingo balute, jakinarazi egin beharko lukete, Elkarateak horretarako eskura jartzen dizkien bideen bitartez, eta jakinarazpena konfidentziala eta sekretua izango da.

 Instituto de Reinserción Social de Euskadi Euskadiko Birgaitzeratze Institutua	Kode Etikoa eta Jokabidekoa berrikustea Nork onartua: Zuzendaritza Batzordea	Zenbakia: 2
		Aldaketa: 01
		Onarpen data: 2024/02/05
		Orrialdea: 13 / 19

m.- Ez dute fede txarreko informazio faltsurik emango, ezta erakundeak partikularrei zein erakunde publikoei ematen dizkien txostenak edo informazioak aldatu edo manipulatu ere, nahiz eta jarduera horrekin erabiltzaileei edo/eta erakundeari berari mesede egin nahi izan. Elkarrekin diziplinaz zigortuko ditu jokabide horiek (baita kaleratzearekin ere), eta izaera zibileko edota penaleko edozein ekintza abiarazteko eskubidea edukiko du.

n.- Interes pertsonalaren eta IRSE-EBI Euskadiren interesaren arteko gatazka eragin dezaketen egoerak saihestuko dira.


ñ.- Langileek beren lan harremanean egiten duten lana dela-eta sortzen den **jabetza intelektual** IRSE-EBI Euskadi erakundearena izango da, eta, beraz, erakundearen jabetza intelektual eta industrial errespetatuko da, besteak beste: patenteak, sekretu industrialak, antolaketa sekretuak, markak, zeinu bereizgarriak, ezagutza teknikoak eta zientifikoak, know-how eta erakundearen jarduerak betetzean lortutako gaitasunak. Enplegatuek jabetza intelektualaren eta komertzialaren eskubide garrantzitsuak ezagutu, babestu, mantendu eta defendatu beharko dituzte, eta eskubide horiek modu arduratsuan baliatu beharko dituzte.

o.- Merkatuko gainerako eragileen **jabetza intelektual/industrialaren eskubideak** ere errespetatuko dira.

p.- Erabiltzaileek alkoholaren, tabakoaren edo edozein substantzia estupefazienteren **kontsumoa egitea sustatu edo errazteari uko egingo diote,** baita sendagaien erabilera desegokia sustatzeari ere, eta era berean, debekatuta egongo da erakundeko langileek substantzia estupefazienteak eta alkohola lanaldian kontsumitzea eta sendagaiak behar ez bezala kontsumitzea.

q.- Ez dute Administrazio Publikoko kideengan eta/edo politikoengan inolako eraginik izango, ezta hori sustatuko ere, eta, horretarako, **IRSE-EBI Euskadik** erakunde politiko eta/edo publikoen aurrean duen **independentzia** zaindu, eta, hala, edozein instrumentalizazio mota saihestuko dute. Era horretan, erabakietan modu desegokian eragiten saiatzea saihestuko da edo funtzionarioen (Administrazio Publikoaren izenean negoziatzen dutenak edo erabakiak hartzen dituztenak barne), zuzendarien edo Administrazio Publikoko langileen, haien ahaide, ezkontide edo hurbilekoen betebeharrak profesionalen aurkako ekintzak egitera bultzatzen saiatzea saihestuko da, nahiz eta ekintza horietatik Elkarrekin onura lortu.



	Kode Etikoa eta Jokabidekoa berrikustea Nork onartua: Zuzendaritza Batzordea	Zenbakia: 2
		Aldaketa: 01
		Onarpen data: 2024/02/05
		Orrialdea: 14 / 19

r.- Ez dira jasotako funts publikoak **jaso zirenez bestelako erabileretarako baliatuko.**

6. LEGEAK BETETZEA

IRSE-EBI Euskadiren jarduera guztiak indarreko araudiaren arabera egingo dira, eta, beraz, **Elkarteko langile guztiak printzipio hauek bete beharko dituzte:**


a.- Indarreko araudia betetzen dela egiaztatzeko ezartzen diren **barruko zein kanpoko berrikuspenak eta ikuskapenak** gainditu beharko dituzte. Besteak beste, auditoria ekonomiko eta finantzarioak, datuen babesekoak eta etikaren eta kalitatearen kudeaketakoak egingo zaizkie, legez egin beharrekoak zein Elkarateak berak erabakitakoak.

b.- **Zorrotzak izan behar dute** erabiltzaileekin, enpresa hornitzaileekin eta erakunde publiko edota pribatuekin bakoitzaren ezaugarri espezifikoaren arabera **hartutako konpromisoak betetzean.**

Erakundeko kide eta langile guztiak 2016an onartutako Kode Etikoa eta dokumentu honetan jasotako aldaketak eta garapenak betetzeko eta betearazteko derrigortasuna dute, bai eta compliance penalerako sistematik (delituak prebenitzeko programa) eratorritako arau, agindu edo irizpide guztiak bete eta betearazteko derrigortasuna ere.

lido horretan, erakundeak prozedura bat ezarri du, edozein enplegatari modu konfidentzian jakinarazi ahal izateko Kodean jasotako printzipioei buruzko edozein ez-betetze edo kontsulta, bai eta compliance penalaren sistematik (delituak prebenitzeko programa) eratorritako arau, agindu edo irizpideak ere, modu konfidentzian, bai eta ustez legez kontrakoa, delituzkoa edo giza eskubideak urratzen dituen beste edozein ekintza ere, eta errepresalien beldurrik gabe.

Kode Etikoa eta Jokabidekoaren eta compliance penalaren sistemaren balizko ez-betetzeak, salaketak eta kontsultak jakinarazteko eta tratatzeko prozedura **ERANSKINEAN** agertzen den **estekan** dago jasota: **SALAKETA KANALA**. Delituen prebentzioa betetzeko programa.

 Instituto de Reintegración Social de Euskadi Euskadiko Birgaitzeratze Institutua	Kode Etikoa eta Jokabidekoa berrikustea Nork onartua: Zuzendaritza Batzordea	Zenbakia: 2
		Aldaketa: 01
		Onarpen data: 2024/02/05
		Orrialdea: 15 / 19

7. GARDENTASUN FINANTZARIOA

Elkarteak zergei eta kontabilitateari buruzko araudiak betetzea bermatuko du eta informazio ekonomiko gardena emango du, printzipio hauen arabera:

a.- Erakundeak une oro kontuen irudi fidela jasotzen duen kontabilitatea eramango du, finantza informazio zehatza eta segurua emanaz, eta ez du kontabilitateko informaziorik edo daturik aldatuko edo manipulatu, ezta finantza auditoriako inbentario edo txostenik ere.

b.- Kanpoko edo barruko auditoriak egingo zaizkio, berak hala nahita zein derrigortuta. Auditoria horiek, hala dagokionean, indarreko araudia betetzen duela ziurtatzeko izango dira, eta pertsona trebatuek egingo dituzte.

8. ZABALKUNDEA, PRESTAKUNTZA ETA EBALUAZIOA

Elkarteak Kode Etiko hau elkarteko profesionalen artean eta IRSE-EBI Euskadin artatutako pertsonen artean zabaltzea bultzatuko du. Zabalkunderako, Kode Etikoa IRSE-EBI Euskadiren webgunean dago eskuragai (IRSE-EBI Euskadi.org/es/). Gainera, langile bakoitzak Kode Etikoa jasoko du bere posta pertsonalean eta IRSE-EBI Euskadik kudeatutako zerbitzuei dokumentua inprimatuta bidaliko zaie.

Era berean, IRSE-EBI Euskadik praktikak egiteko edo boluntario aritzeko kontratatuta, Elkartean lan egiten duten pertsoneri ere aurkeztuko zaie Kode Etikoa, hasieran ematen zaizkien prestakuntza saioetan.

9. DIZIPLINA ERREGIMENA

IRSE-EBI Euskadik Kode Etiko hau eraginkortasunez aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak garatuko ditu.

IRSE-EBI Euskadiko langile guztiak behartuta daude Kode Etikoa errespetatzera eta beren jokabidea Kode Etikoan jasotzen diren printzipioetara egokitzen.

Kode Etiko honetan jasotzen diren xedapenak bete ezean, IRSE-EBI Euskadiko zuzendaritzak neurri egokiak hartuko ditu, Etika Batzordeak hala proposatuta eta proportzionaltasun irizpideei jarraituta.

10. ONARPENA

IRSE-EBI Euskadi osatzen duten pertsonen eta kontratatutako pertsonen ere berriaz onartzen dituzte Kode Etikoa ezarritako jardute arauak.

Etorkizunean Elkartean sartzen diren edo Elkarteko kide egiten diren profesionalek berriaz onartuko dituzte Kode Etikoa ezarritako printzipioak eta jardute arauak.

Kode Etikoa, halaber, Elkarteko plantilla guztiaren lan kontratuei eta praktika zein boluntariora hitzarmenei atxikiko zaie.

11. ONARPENA ETA GARAPENA

2016ko irailaren 27an bazkideek egindako Batzarrean eman zioten oniritzia Kode Etiko honi.

Kode Etikoa 2020ko uztailaren 1ean jarri zen indarrean.

Kode Etiko honen lehen berrikuspena Zuzendaritza Batzordearen bileran onartu da, 2024ko otsailaren 5ean egindako ezohiko bilkuran.



ERANSKINA: SALAKETA KANALA

Delituen prebentzioa betetzeko programa:

Esteka:

[https://whistleblowersoftware.com/secure/Irse-ebi Canal-denuncias](https://whistleblowersoftware.com/secure/Irse-ebi_Canal-denuncias)



 <small>Instituto de Reintegración Social de Euskadi Euskadiko Birgaiteratzte Institutua</small>	Kode Etikoa eta Jokabidekoa berrikustea Nork onartua: Zuzendaritza Batzordea	Zenbakia: 2
		Aldaketa: 01
		Onarpen data: 2024/02/05
		Orrialdea: 18 / 19



**Whistleblower
Software**

Español



[Inicio](#) [Política de privacidad](#)

Irse-Ebi Canal de denuncias

Como empleado, puede comunicar asuntos graves de forma anónima o si tiene sospechas razonables de tales asuntos.

Reporte anónimo de asuntos serios

A través de esta página, puede enviar información sobre asuntos reprobables o reportar acciones poco éticas, ilegales o que violen las políticas internas. Este sistema debe utilizarse para sacar a la luz asuntos que de otro modo no habrían salido a la luz.

Se puede reportar de forma confidencial indicando el nombre y la información de contacto o, si se desea, de forma 100% anónima.

Todas las consultas se tratan de forma confidencial y segura.

Asuntos relacionados con RRHH

Los asuntos relacionados con recursos humanos no pueden ser reportados en este sistema, sino que deben ser discutidos con el manager a cargo, el director o recursos humanos.

Desde esta página, puede realizar un nuevo informe seguro o hacer un seguimiento de un informe existente.

El seguimiento de sus informes puede ser relevante por numerosas razones:

- 1) Desea ver el estado de su informe para comprobar si se están tomando medidas.
- 2) Desea proporcionar información adicional a su informe.
- 3) Los administradores del sistema le solicitaron dar información adicional para ayudarlos a resolver el problema o tomar la acción apropiada.

Puede obtener más información sobre la Ley de protección al informante o [Ley Whistleblowing en España aquí](#).

Lea información relevante antes de presentar su comunicación en el [canal aquí](#).

+ Crear una nueva comunicación

Seguimiento de comunicación existente

